Ego-aizeak jo orduko......

Gu baño bego-zoli ta azkaragoak izan oi-dira gure baseri-tarak. Garia kakotetu dadinean dana garandu ta galtzeko ego-aize puztu bat naiko dana ba-dakie ta goiz ta iluntze amaitu arte ez dabe asterik izaten.

Gure eri onen gogo-lantze ta izatea daratuskeguen ainbat iz-esakera, siñeskeri ta ekandu galdu-agiñean doguz. Asko ta asko mendi bazterietako baseri-zuloetan bizi dira. Erdel-aizeak uxatu dauz batzuk, beste asko luzaro ezelan be ezin bizi daitez. Zer dala-ta? Siñeskeri, oitura ta ekanduok belaunetik-belaunera duaz; aitak semeari ta semeak bere ondorenguei erakusten dautsoez. Sendi-alkartasuna ta batasuna geroago ta indargeago egiten yuaku. Erirtan beterpe aita-semeak janorduetan bakarik alkar ikusten dabe. Baserietan be, aintziña eduko batasunik ez dogu; baterpe erri edo lan baserietakoak alkarekin noz ikusten doguz. Lenago sari, neguan-eta egunero bateko irulen, bestetako arto-zurikelan alkarekin zenduzan. Orain bakotza bere buruaren jaube ta bere egikizunetarako bar da bakotza.

Orrez gaiñera siñeskeri askok oiñarririk ez dauke gaur. Ekandu edo oitura a zertarako dan edo gure bizibidearekin ta izatearekin zerikusirik daukan ez dakigu. Adibidez; Gabon-gabaz ogiari kuskura ebagi ta gorde egiten da. Kalean be egiten da-an. Ebagi ostean gorde edo arian sartuta ta esegi. Kuskura Zergaitik gorde daben itaun-dirautsozu, euren gurasoak be orixe egiten ebelako

erakutsingo deutsu. Etxe batzuetan jairi batera ta bota bestera erabiliko dabe Gabon gabaz ebagiteko ogi kaskurri etxekuok ardurabako-txemaiak be-yatekez. Urengo urtean, be ltteke gogoratzea ta ogi kaskurra gordetea baña alako baten ez dabe ebagiko be. ezingo. Zertarako ebagi baña? Ostera ebaindu orék luzaroago iraun daike baserian. Txakur edo aberen bat amoratu ezkero otser aundiak eta ezkeriak letorkiezanaz be-dakie ta euren ustez txakurrak ez amorake oren goi-beia ogi-kuskur orietantxe dago. Arduraz gordeten dabe ta ariñetxo urteko txakur ta aberiei emon be bai.

Baserietan be baña oitura eta siñeskeri askok oraín ez dauke oñarririk eta galdu-aginean dogu. Aldar ezpa'gabe oraín bilu gero jiatea alperik izango da. Eta gure eritonen izatera ezagutzea bear-bearreko yatzu, baita geure izaturik zabalgunkaratko be.

Ikastideak; siñeskeri, oitura, esakera, ekandu ta abar en bila ez zara iñoz ezi? Ari zaitez; udarako lan egokia yatzu au. Gauza asko ikasi daitekez. Geure burutik argi ta azkaztatakotzat dogu ta geure zeregiñotan baseritarak euren etan baño zabaiago izatea ondo deritxazu?